

► ASTIGARRAGA

Sagardoz bustiko da frontoi berria gaur gauez

■ 13.300 botila dastatu eta puntuatuko dira.

X. ARAMENDI

Iaz baino lasaiago agertzen dira Gure Izarra, Zipotza eta Astigar elkarteetako kideak urtero legez, gaur ospatuko den sagardo festaren aurrean. «Frontoi berriari iaz hartu genion neurria eta lanak hobeto prestatu ditugu —dio Joxe Mari Olaziregik—. Sagardogileak ere animaturik daude eta afari ona jartzeko esan digute».

Menua aldatu egin dute aurrengoan, txorizoa sagardoarekin, bakailaoa tomatearekin, eta txuleta jarri dute kostilaren ordean. Atzetik gazta, tarta eta kafe konpletoa etorriko dira. «Esfortzu txiki bat egin dugu, baina etortzen direnek merezi dute», gehitzen du.

Bada beste nobedade bat ere, aurreko egunetan prestatu dutena Goiko Plazan berotuko baitute eta baita haragia erre ere. Aipatzekoa da orain arte elkarteetan burutzen zituztela prestantza hauek baina nahiago izan dute afaltzera doazenek ikustea. 70 kilo txorizo, 190 kilo txuleta eta 170 kilo bakailao jango dira guztira.

Iluntzeko 6etan irtengo dira trikitilariak kalez kale eta 8etan egingo dute frontoi berrira joateko deia txalapartariak. Guztira

13.300 botila aurkeztuko dituzte 32 sagardogilek eta hiru minututuko tartearekin puntuatzen joango dira partehartzaileak. Sagardogileek ere beren bozketa egingo dute. Aipatzekoa da gertatu izan dela bi puntuaketek sagardo berari saria ematea, iazkoan esaterako, Barkaiztegi aukeratu baitzuten guztiek.

Olaziregiren ustez horrek Astigarragako sagardo festa honetan parte hartzen dutenak sagardoa edaten dakitenak direla frogatzen du. «Hemendik aurrera da sagardoa botilatan edateko garai onena eta horregatik erabaki genuen duela hamar urte irailean egitea lehiaketa hau», dio.

Denak puntual

Lehiaketa honen oinarriek argi uzten dutena zera da, afaria hasi ondoren ezin dela puntuaketarik eman, ondorengo sagardogileek puntu gehiago jasotzeko aukera izango bailukete.

Afalondoan Lizaso eta Egaña bertsolariak arituko dira eta azken uneko ezusterik ez bada behintzat, bertan izango da Panpi Laduxe ere. Lehiaketari erromeriarekin emango zaio amaiera frontoian.

Afarirako txartelik geratzen da oraindik eta prezioa 4.000 pezeta da. Interesatuak Ikatza tabernara (55 49 89) edo Zipotzara (55 79 63) deitu behar dute.